

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**ALDAMAR 14**



**Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1886**  
Ez dago jatorrizko proiektuaren planorik Udal Artxiboan

**Deskribapena.**

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin, arin atzeraemandako bi jasodura (lehenengoa ere 1886koa eta bigarrena 1946koa) eta estalkiaren azpian oin bat (1946koa) dituena. Harlanduzko fatxada. Proiektu komuna Aldamar 16rekin.

**Babes erregimena.**

1. Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa; babes erregimen hori, oro har, eraikinaren egungo konfigurazioari lotuta ulertuko da.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihai, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C. Esku hartzeko irizpide zehatzak: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.